

ITZULPENA¹

Araua: 2009/20/EE Zuzentaraua, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2009ko apirilaren 23koa, itsasontzien jabeek itsas zuzenbideko erreklamazioei aurre egiteko duten aseguruari buruzkoa.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «**DIRECTIVA 2009/20/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 23 de abril de 2009, relativa al seguro de los propietarios de buques para las reclamaciones de Derecho marítimo** » (Diario Oficial de la Unión Europea, L 131/128 de 28/05/2009) 2009/20/EE zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 131, 2009/05/28koa)

**2009/20/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA
KONTSEILUARENA,
2009ko apirilaren 23koa,
itsasontzien jabeek itsas zuzenbideko erreklamazioei aurre egiteko duten aseguruari buruzkoa
(Testu egokia EEEren ondorioetarako)**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europar Erkidegoa eratzekeo Tratatuaz aztertu dute, eta bereziki, haren 80. artikuluko 2. paragrafoa.

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute⁽²⁾

Eskualdeetako Komitearen irizpena aztertu dute⁽³⁾,

Tratatuaren 251. artikuluan xedatutako prozedurari jarraitu diote⁽⁴⁾,

alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

- (1) Itsas garraioari buruzko Erkidegoko politikaren elementuetako bat da merkataritza-ontzidiaren kalitatea handitzea, ekonomia-operadore guztiei erantzukizun handiagoa emanez.
- (2) Jada disuasiozko neurriak hartu dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005eko irailaren 7ko 2005/35/EE Zuzentarauaren⁵ bidez (ontziek eragindako kutsadurari eta arau-hausteetarako zigorrak ezartzeari buruzkoa).
- (3) 2008ko urriaren 9an, estatu kideek adierazpen bat egin zuten, eta bertan aho batez onartu zuten garrantzitsua zela estatu kide guztiek aplikatzea 1976ko Hitzarmenaren 1996ko Protokoloa (Hitzarmena Itsas zuzenbideko erreklamazioetatik eratorritako erantzukizuna mugatzeari buruzkoa da.
- (4) Aseguru bat izateko obligazioak aukera eman behar du biktimei babes handiagoa emateko. Era berean, lagungarria izan behar du itsasontzi akastunak alde batera uzteko, eta aukera eman behar du operadoreen arteko lehia berrezartzeko. Horrez gainera, Nazioarteko Itsas Erakundeak (IMO) bere A898(21) Ebazpenean estatu kideei eskatu zien itsasontzien jabeak estutzeko, behar bezala aseguraturuta egon daitezzen.
- (5) Ezinbestekoa Zuzentarau honen xedapenen ez-betetzeak zuzentzea. 2009/16/EE Zuzentarauak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarenak, 2009ko apirilaren 23koak, portua zuzentzen duen estatuak itsasontziak kontrolatzeari buruzkoak (bertsio bategina)⁽⁶⁾, ezartzen du itsasontziak ibilgetu egin behar direla, itsasontziak ez badarama eraman beharko lukeen ziurtagiria. Hala ere, aseguru-

² C 318 EO, 2006.12.23koa, 195. or.

³ C 229 EO, 2006.9.22koa, 38. or.

⁴ Europako Parlamentuaren Irizpena, 2007ko martxoaren 29koa (C 27 E EO, 2008.1.21ekoa, 166. or.), Kontseiluaren Jarrera Bateratua, 2008ko abenduaren 9koa (C 330 E EO, 2008.12.30ekoa, 7. or.) eta Europako Parlamentuaren Jarrera, 2008ko martxoaren 11koa (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea).

⁵ L 255 EO, 2005.9.30ekoa, 11. or.

⁶ Ikus Aldizkari Ofizial honen 57. orrialdea.

ziurtagiririk ez duen itsasontzia kanporatzeko aukera eman behar da. Kanporatzeko modalitateek aukera eman behar dute arrazoizko epe batean egoera zuzentzeko.

- (6) Kontuan hartuta estatu kideek ezin dituztela beren aldetik zuzentzarau honen helburuak behar bezala bete —hots, neurri baliagarriak sartzea eta ezartzea itsas garraioaren arlo politikoan— eta haien munta eta ondorioak ikusita, Erkidegoan hobeto lor daitezkeenez, Erkidegoak neurriak har ditzake, Tratatu 5. artikuluan jasotako subsidiarotasun-printzipioari jarraiki. Artikulu horretan adierazitako heinekotasun-printzipioaren indarrez, zuzentzarau honek helburu horiek lortzeko beharrezko neurriak besterik ez ditu hartzen.

HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Xedea

Zuzentzarau honek itsasontzien jabeen betebeharren alderdi jakin batzuei aplika dakizkieken arauak xedatzen ditu, itsas zuzenbideko erreklamazioei aurre egiteko aseguruari dagokionez.

2. artikulua

Aplikazio-eremua

1. Zuzentzarau hau erregistro gordineko 300 tonako edo gehiagoko itsasontziei aplikatuko zaie.
2. Zuzentzarau hau ez zaie aplikatuko gerra-itsasontziei, itsasontzi laguntzaileei, eta estatuaren jabetza diren edo estatuaren zerbitzupean dauden eta merkataritza-helbururik gabeko zerbitzu publikoa ematen duten beste itsasontzi batzuei.
3. Zuzentzarau honek ez ditu baldintzatuko eranskinean aipatutako tresnek xedatutako erregimenak, dagokien estatu kideetan indarrean daudenak.

3. artikulua

Definizioak

Zuzentzarau honi dagokionez, honako definizio hauek hartuko dira oinarri:

- a) «itsasontziaren jabea»: itsas nabigazioko itsasontzi baten jabe erregistratua, edo itsasontzia ustiatzeko ardura duen beste edozein pertsona, hala nola ontzi-krosko hutseko pleitaria;
- b) «asegurua»: Itsasontziaren aseguruua, frankiziarekin edo frankiziarik gabe, hauek barne hartzen dituena, besteak beste: kalte-ordainen aseguruak, International Group of P & I Clubs taldeak (babeserako eta kalte-ordainetarako klubuen Nazioarteko Taldea) ematen dituenetakoak; eta antzeko estaldura-baldintzak eskaintzen dituzten beste aseguru (autoaseguru frogatua barne) eta finantza-berme mota eraginkor batzuk.
- c) «1996ko Hitzarmena»: 1976ko Hitzarmenaren testu bategina. Itsas zuzenbideko erreklamazioetatik eratorritako erantzukizuna mugatzekoa da, eta Nazioarteko Itsas Erakundeak (IMO) onartu zuen, 1996ko Protokoloak aldatutako bertsioan.

4. artikulua

Itsas zuzenbideko erreklamazioei aurre egiteko aseguruak

1. Estatu kide bakoitzak bandera daramaten itsasontzien jabeek eskatuko die itsasontzia barne hartzen duen aseguru bat izateko.
2. Estatu kide bakoitzak bere estatukoa ez den bandera daraman itsasontzietako jabeek eskatuko die aseguru bat izateko, itsasontziak estatu kidearen jurisdikziopean dagoen portu batean sartzean. Horrek guztiak ez du eragotziko estatu kideek betebeharrak betetzeko eskatzea, itsasontzi horiek jurisdikziopeko uretan nabigatzen ari direnean, nazioarteko zuzenbideari jarraiki.
3. 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako aseguruak bere gain hartuko ditu 1996ko hitzarmenaren arabera mugaren mende dauden itsas zuzenbideko erreklamazioak. Itsasontzi bakoitzak jazoera bakoitzeko duen erantzukizuna erantzukizunaren mugan zehaztutako gehieneko zenbatekoa izango da, 1996ko hitzarmenak agintzen duen bezala.

5. artikulua

Ikuskapenak, adostasuna, portuetatik kanporatzea eta portuetan sarrera ukatzea

1. Estatu kide bakoitza arduratuko da 6. artikuluan aipatutako ziurtagiria itsasontzietan dagoela egiaztatzeaz, bere jurisdikziopeko portuetan 2009/16/EE zuzentarauari jarraiki itsasontziei ikuskapenak egiten zaizkienean.
2. Itsasontzian bertan 6. artikuluan aipatutako ziurtagiririk ez badago, agintari eskudunak kanporatze-agindu bat eman dezake itsasontzi horren aurka. Dena den, 2009/16/CE zuzentarauak xedatutakoa ere aplikatu ahal izango da, segurtasun-kontuak kolokan daudenean itsasontziak ibilgetzea aurreikusten duena. Kanporatze-agindua Batzordeari, gainerako estatu kideei eta eragindako banderako estatuari jakinaraziko zaio. Kanporatze-agindu hori ematearen ondorioz, estatu kideek ontziari beren portuetan sartzea debekatu beharko diote, itsasontziaren jabeak 6. artikuluan aipatutako ziurtagiria aurkezten duen arte.

6. artikulua

Aseguru-ziurtagiriak

1. 4. artikulua aipatutako aseguruak dagoela frogatu beharko da, aseguruak ematen duen etxeak egindako ziurtagiri baten edo zenbait ziurtagiriren bidez. Ziurtagiriak itsasontzian bertan eraman beharko dira.
2. Aseguru-emaileak egindako ziurtagiriek datu hauek adierazi beharko dituzte:
 - a) Itsasontziaren izena, OMI zenbakia eta matrikulako portua;
 - b) Itsasontziaren jabearen izena eta establezimendu nagusia;
 - c) Aseguru-mota eta aseguruak zer iraupen duen;

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

d) Aseguru-emailearen izena eta establezimendu nagusia, eta hala badagokio, aseguruaren zer establezimendutan sinatu zen.

3. Ziurtagirietan erabilitako hizkuntza ez bada ingelesa, frantsesa edo espainiera, hizkuntza horietako batera egindako itzulpena ere eraman beharko da.

9. artikulua

Zigorrak

4. artikuluko 1. paragrafoa betetze aldera, estatu kideek zigor-erregimena ezarriko dute zuzentarau hau aplikatzean hartutako estatuko xedapenak ez betetzeagatik, eta beharrezko neurriak hartuko dituzte, zigorrak aplikatu daitezkeen. Xedatutako zigorrak eraginkorrak, neurrikoak eta disuasiozkoak izango dira.

8. artikulua

Txostena

Hiru urtean behin, eta lehen aldiz 2015eko abenduaren 1a baino lehen, Batzordeak txosten bat aurkeztuko dio Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, zuzentarau honen aplikazioari buruz.

9. artikulua

Estatuko zuzenbidean txertatzea

1. Estatu kideek indarrean jarriko dituzte zuzentarau honetan ezarritakoa betetzeko beharrezko xedapen legalak, arauzkoak eta administratiboak, beranduenez 2012ko urtarrilaren 1ean. Berehala emango diote horren berri Batzordeari.

Estatu kideek xedapen horiek onartzen dituztenean, zuzentarau honi ere erreferentzia egingo diote bertan, edo aipamen horrekin batera azalduko dira argitalpen ofizialetan. Estatu kideek zehaztuko dituzte erreferentzia horiek egiteko modalitateak.

2. Zuzentarau honek arauturiko esparruan onartzen dituzten barne-zuzenbideko xedapen nagusien testua jakinaraziko diote estatu kideek Batzordeari

10. artikulua

Indarrean sartzea

Zuzentarau *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

11. artikulua

Hartzaileak

Estatu kideak dira zuzentarau honen hartzaileak.

Estrasburgon emana, 2009ko apirilaren 23an.

*Europako
Parlamentuaren
izenean,*

Kontseiluaren izenean,

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Presidentea
H.-G. PÖTTERING

Presidentea
P. NECAS

ANEXO

- Convenio internacional sobre responsabilidad civil por daños causados por la contaminación de las aguas de mar por hidrocarburos, de 1992.
 - Convenio internacional sobre responsabilidad e indemnización de daños en relación con el transporte marítimo de sustancias nocivas y potencialmente peligrosas, de 1996 (Convenio SNP).
 - Convenio internacional sobre responsabilidad civil nacida de daños debidos a contaminación por los hidrocarburos para combustible de los buques, de 2001 (Convenio «Bunkers 2001»).
 - Convenio Internacional de Nairobi sobre la remoción de restos de naufragio, 2007.
 - Reglamento (CE) n° 392/2009 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 23 de abril de 2009, sobre la responsabilidad de los transportistas de pasajeros por mar en caso de accidente.
-